


3. AHOZKO ULERMENA

Entzun **Trikuharriak** testua eta adierazi esaldiak egia ala gezurra diren.

- Trikuharriak izendatzeko era asko daude Euskal Herrian.
- Trikuharriak jentilek egin zituzten aspaldiaspaldi.
- Trikuharrien sarbidea eguzkialdera begira dago, Historiaurreko gizakiei argitasuna gustatzen zitzaielako.
- Euskal Herrian oso trikuharri gutxi topatu dira.
- Normalean, mendi inguruan kokatuta daude trikuharriak.
- Euskal Herrian azaldu zen lehen trikuharria oso hondatuta dago.



Entzun Tutankamonen madarikazioa testua eta aukeratu erantzun zuzenak.

Zenbat urtez egon zen ezkutuan Tutankamon faraoiaren hilobia?

- 2.000 urtez.
- 1.000 urtez.
- 3.000 urtez.

Norekin sartu zen Howard Carter hilobian?

- Bakarrik.
- Lord Carnarvonekin.
- Taldekide askorekin.

Zerk heldu zion Lord Carnarvoni hil aurretik?

- Suge batek.
- Eskorpioi batek.
- Eltxo batek.

Espedizioko zenbat kide hil ziren modu misteriotzuan?

- Bat ere ez.
- Batzuk.
- Guztiak.

Non zeukan zauria Tutankamonen momiak?

- Aurpegian.
- Besoan.
- Bularrean.

Entzun Ulises eta Polifemo ziklopea testua arretaz eta erantzun.

Zergatik lehorreratu ziren Ulises eta bere gizonak uhartean?

Nor bizi zen uharte hartan?

Zergatik sartu ziren Ulises eta beraren gizonak leize-zuloan?

Nor zen Polifemo?

Zer egin zuen Polifemok Ulises eta beste gizonak ikustean?

Nola egin zuten ihes Ulisesek eta beraren gizonak Polifemoren leize-zulotik?

Zer egin zuen Polifemok azkenean?